

ONDAREAREN GAINKO ZERGA – 2018KO EKITALDIK. 2/2013 FA

Zerga-oinarria	Higiezinak	Hiri eta landako ondasun higiezinak	Bizkaiian daudenak	EGB duten ondasun higiezinak	EGBren %50	
				EGBrik ez duten ondasun higiezinak	Katastro-balioa , berrikusita edo aldatuta badago. Eguneratu ez bada: 10 x indarreko katastro-balioa .	
			Bizkaitik kanpo daudenak	Katastro-balioa		
			Atzerrian daudenak eta katastro-baliorik ez dutenak	Eskuraketa-balioaren %50 , balioa eguneraturik dagoela moneta-zuzenketako koefizientea aplikatuta (13/2013 FA, 45.2 art.)		
		Eraikitzen ari diren ondasun higiezinak	Zergaren sortzapenera arte eraikuntzan inbertitutako kopuruen %50 + orubearen ondare-balioaren %50 (ondare-balioa FAko 12. artikuluan eta 5. xed. gehigarrian ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da) Jabetza horizontala izanez gero, tituluaren finkaturiko ehunekoaren arabera zehaztuko da orubearen balioari dagokion zati proportzionala.			
	Enpresa eta lanbide jarduerak (salbuetsita egon ezean)	Kontabilitatearen araberrako balioa, Merkataritzako Kodea betetzen bada; <i>salbuespenak: ondasun higiezinak, ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien kasuan foru arau honetako 12. artikulua (ondasun higiezinak) edo 20. artikulua (ibilgailuak, itsasontziak eta aireontziak) aplikatuko da zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta kontabilitateko balioa artikuluan ezarritakoa aplikatzearen emaitza baino gehiago ez bada.</i>				
	Gordailuak kontu korrontean , ageriko kontuan edo epera ezarrita	Ondoko bietatik handiena: azken hiru hilabete bategiaren besteko saldoa eta Zergaren sortzapen-eguneko saldoa (batez besteko saldotik beste ondasun batzuk erosteko eta zorrak murrizteko funtsak kendu behar dira)				
	Norberaren kapitalak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak	Kotizatzen dutenak		Sortzapen-eguneko duten kotizazio-balioa		
		Gainerakoak		Balio izendatua		
	Burtsan kotizatzen duten akzioak	Sortzapen-eguneko duten negozio-balioa				
Burtsan kotizatzen ez duten akzioak	Ondasun azken balantzearen araberrako balio teorikoa (<i>Hala ere, zerga honen zerga-oinarriak kalkulatzeko, ondasun higiezinak, bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreen, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen eta foru arau honetako 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien kontabilitateko balioa gabe hartuko da kontuan, hurrenez hurren: foru arau honetako 12. artikuluan, 15. artikuluan, 17. artikuluan, artikulua honetako bigarren idatz-zatia eta 20. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatzeko balioa, kontabilitateko balioa manu horietan ezarritakoaren araberrakoa baino gehiago izan ezean. Gainera, kontuan eduki behar da zergadunak zeharka, beste erakunde batzuetako partaidetzen bitartez, dauzkan ondasun higiezinak, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen, eta ibilgailu, itsasontzi eta aireontzien balioa, eta paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, baldin eta kapitaleko partaidetza %5ekoa bada gutxienez. Honelakoetan zergadunaren partaidetza ez ezik ondokoena ere zenbatuko dira: ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen araberrakoa eraberrakoa, aurrekoena, ondorengoena edo bigarren graduako albo ahaideenak (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotekidearen eraketa edo adopzioa), eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoaren araberrakoa lotutako pertsona eta erakundeena.</i>)					
Inbertsio-funtsak	Sortzapen-eguneko likidazio-balioa					
Bizi-aseguruak	Sortzapen-eguneko erreskate-balioa (<i>Hala ere, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeko 87. artikuluan xedatutakoa aplikatuta bizi-aseguruaren onuradun ezeztatzen izendatu bada beste pertsona bat, aseguruaren hartzailearen zerga-oinarria hartu behar da kontuan, hain zuzen ere Zergaren sortzapen-eguneko onuradunak jasoko lukeen kapitalaren balioa.</i>)					
Bitxiak, larruak eta ibilgailuak (125 cc baino gehiago), itsasontziak eta aireontziak	Merkatuko balioa sortzapen-eguneko (ibilgailuentzat: eskualdaketen eta dohaintzen taulak)					
Arte objektuak eta antzinako objektuak	Merkatuko balioa					
Eskubide errealeak	Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren irizpideak					
Zorrak	Sortzapen-eguneko balio izendatua					

Likidazio-oinarria	Zerga-oinarria – salbuetsitako gutxieneko zenbatekoa 800.000
Kuota-muga	
<p>PFEZen kuota osoa + Ondarearen gaineko Zergaren Kuota ezin da izan zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren %65 baino gehiago</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ PFEZen ZOari ondare-sozietateen partaidetzak eta dibidenduak gehitu behar zaizkio. ○ Mugaren ondorioetarako ondasun ez-emankorrak ez dira aintzat hartuko. ○ Gutxienez Ondarearen gaineko Zergaren kuotaren %25 ordaindu behar da. ○ PFEZen oinarriari zergadunak jabetza soilean dituen ondasunen etekinen zenbatekoa eta gozamenarena gehitu behar zaizkio honako kasu hauetan: <ul style="list-style-type: none"> a) Ezkontideari, izatezko bikotekideari (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako bikotea), aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduako albo-ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratxiki badio, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikulua arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati. b) Zergadunak hirugarren bati eskualdatu badio Zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan. Kasu batean zein bestean, kontraktorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hauxe izango da: ondasunon jabetza osoari dagokion balioaren %5, foru arau honetako 1 2- 26 bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera. ○ Zergadunaren ondarean sartuko dira zergadunak Zergaren sortzapenaren aurreko bost ekitaldian dohain eskualdatutako ondasunak, ondoko kasuan izan ezik: egiaztatzen denean dohaintza-hartzaileak Ondarearen gaineko Zergaren kargapean daukala ondasun horien balioaren besteko zenbatekoa. Arau hori ez zaie aplikatuko, ordea, 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 18. artikuluan aipatzen diren erakundeei dohain emandako ondasunei (arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da). 	
<p>Adibidea: PFEZ</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Zerga-oinarri orokorra, 20.000 euro (PFEZen kuota orokor osoa, 3.000 €) ○ Aurrezkiaren zerga-oinarria, 10.000 € (aurrezkiaren kuota osoa, 2.000 €). <p>Ondarea: kuota, doikuntzaren aurretik: 15.000 € Muga: %65 (20.000 + 10.000) = 19.500 € Kuota bateratua = (3.000 + 2.000) + 15.000 = 20.000 €. Ondarearen gaineko Zergaren kuota doitu behar da eta 500 eurotan murriztu (20.000 – 19.500). Ondarearen gaineko Zergaren azken kuota = 15.000 – 500 = 14.500 €; hasierako kuotaren %25 baino gehiago denez (15.000 x %25 = 3.750), ez dago beste doikuntzarik egin beharrik.</p>	
Salbuespenak	Ohiko etxebizitza, 400.000 € gehienez
	Pentsio-planetan, BGAEetan, bermatutako aurreikuspen-planetan, mendekotasun-planetan, pentsio-konpromisoak gauzatzen dituzten talde-aseguruetan eta antzekoetan kontsolidatutako eskubideak
	Etxeko gauzak
	Euskal kultur ondareko eta Espainiako eta autonomia erkidegoetako ondare historikoko ondasunak
	Jabetza intelektualak edo industrialak egilearen ondarean dauden artean sortzen dituzten eskubideak
Pertsona fisikoek euren jarduera ekonomikoetarako behar dituzten ondasunak eta eskubideak; ezinbestekoa da jarduera subjektu pasiboaren ohiko jarduera izatea, berak zuzenean egitea eta beraren errenta-iturri nagusia izatea.	
Aurkeztu beharra	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zergaren kuota positiboa bada (zerga-oinarria 800.000 euro baino gutxiago bada, kuota zero izango da, zenbateko horretako murrizketa aplikatu daiteke eta) ○ Ondasun eta eskubideen balioa 2.000.000 eurotik gorakoa bada

Likidazio-oinarria, gehienez (euroak)	Kuota (euroak)	Likidazio-oinarriaren gainerakoa, gehienez (eurotan)	Karga-tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	800.000,00	%0,20
800.000,00	1.600,00	800.000,00	%0,60
1.600.000,00	6.400,00	1.600.000,00	%1,00
3.200.000,00	22.400,00	3.200.000,00	%1,50
6.400.000,00	70.400,00	6.400.000,00	%1,75
12.800.000,00	182.400,00	Hortik gora	%2,00